

- **Entzutekuak:** Moises Altuna, Itxaropena elkarteko lehendakari ohia
- **Zer berri:** Laburbiraren eskutik zortzi film labur proiektatuko dira zinean

soraluzeko
hamabostekaria **261.** alea
2012ko martxoaren 9an

iturria: flickr.com/dombibrez

pil-pilean

**2012rako aurrekontua
%8 murrizagoa**

Javier Alberdi



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Sorluze

ARMENDIA
JATETXEA



Ezoz Auzoa 11
20590 Sorluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

TXURITXU

Zuekin gozatzen



943 75 24 43

Santa Ana kalea 22 behe



Lakuesta
Optika

Ikusmen arazoan frogak eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Sorluze
T. 943 75 30 59



Soraluzeko Kooperatiba Elkarte

1910etik

943 75 13 45

MARE
ILEPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM



Errebal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORLUZE



Txoko kafetegia

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea,
Sorluze, Tel. 943 75 17 89



Elizpe
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NELURARA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 behea, Sorluze

TXURRUKA
JATETXEA



www.txurruka.com
943 75 15 81



MARI MAR
HARATEGIA

Gurean Euskal Herriko produktuak!

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Sorluze

Etxabe Harategia



Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75



JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAZENTXITARRAI
GUCAN IZANDIKO KONFIANTZAGATIKI



MARKEL ARIZAGA



AITOR MADRID

EXTRA, EXTRA!

Lepa Aitor, dana ondo? Ni hemen nabil, betiko mar-txan. Aurreko astian beste egunkari baten amaiera ezagutu genduan. Ez da beran paperezko edizina bertan behera lagatzen daben lelena eta azkena izango. Zoritxarrez, guretzat ez da barrixa egunkari bat galtzia eta badakigu zer suposatzen daben halako gertakari batek.

Pasatu dan asteko kasuan, espero genduan zeoze zan, *Publicok* zeukan egoera ekonomikua ikusitta. Ni ez naiz paperezko egunkarixen irakurlia eta uste dot gero eta gutxiago dirala albistiak orrixak pasatuz irakurtzen dabenak, baina errotatiben amaieriak ez dot uste egunkarixen desagerpena suposatuko dabenik, besterik bare, formatu aldaketa bat egongo da. Hori bai, pentsatzen dot oso biharrezkuak dirala gizartian garapena bermatzeko. Gaur egun albistiak ez dira existitzen, gure begixeekin ikusten ez badittugu behintzat, eta horregaittik gertakari barden inguruan iritzi ezberdinak izatiak norberan aberastasuna indartzen dau.

Bizi dogun garaiotan existitzen diran egunkarixak ezin dira dauken objetibotasunagaittik definitu eta esan leike danek, euren interesen arabera moldatzen dabela egixa. Zela ez, guri gehixen gustatzen jakuzen gizurak esaten dittuen egunkari horrek dira guretzat objetibuak, baina egixa jakitzetik ahalik eta gertuen egoteko, danon gizurak ezagutzia komeni da. Guzti horregaittik lotsagarrixak pentsatzen jataz izendatuko ez doten egunkari batetik agertu diran barrixak eta zorionak, gizartia ahalik eta ezjakinena izatia nahi dabela erakusten dabelako. *Euskaldunon Egunkarixakin* erakutsi zebe herri baten ezaugarri identitarixuak suntsitzeko prest daozela, eta oin erakusten dabe gizartian ignorantzia eroso sentitzen dirala.

Goguan hartzeko

“Aznarren PPK Diputatuen Kongresuan gehiengo zuela, dena nahasi, terrorismoa, hizkuntza eta kultura eta bi egunkari itxi zituen; Egin eta Egunkaria.”

El Punt herrialde Katalanetako egunkaria

“

“Errotatiben amaieriak ez dot uste egunkarixen desagerpena suposatuko dabenik”

Markel Arizaga

“Nik uste dot beste era baten irakurriko dittugula egunkarixak”

Aitor Madrid

”

Aupa Markel, gurian badakigu zer dan egunkarixak itxi biharra eta ez arazo ekonomikuen ondorixoz *Publico* moduan. Agian hurrengo baten holako ekimena aurrera ataratzeko beste formula batzuk bilatu biharko dittue. Auzolana da onena. Horretaz gurian zerbait badakigu. Berria, adibidez, hola sortua zan eta “ziztadak” bilduaz era berian egittia nahi dau aurrera. Espainarrek badauke gurian eredu polita nahi daben hori aurrera etaratzeko. Beraien eskuin muturrekuak poztu egin dira *Publicon* itxierriakin bai, ez da harritzekua, lotsagabe eta harro dabiz ziharo oldartuta. Argi ikusi da zein balixo etiko gutxi dauken auzokuan gaitzekin poztuaz.

Pentsan etorkizunak gizarteko beste alor batzuk moduan aldatzen dihardu. Sariak dakarren berrikuntziak onerako edo txarrerako txoko franko astintzen dihardu eta moldatu biharra dago. Egunkarixak ez dira salbuespena. Internetak indarra hartu zebanian paperan heriotza hurbil zeguala esaten zebe askok baina bai zera! Nik uste dot beste era baten irakurriko dittugula egunkarixak, baina hori da garrantzitsuena, irakurtzen jarraitzia.

Zer esan objetibotasunaz? Ba ez dala existitzen. Biharbada hurbildu zeinke halako zerbaittera baina ez dozu lortuko nahi dozun hori objetibotasun osoz azaltzerik. Eta zegaittik? Danok gizaki subjektuak garalako. Nik errealitatia era baten ikusten dotelako eta zuk beste baten. Pentsan beste horrenbeste pasatzen da. Egunkari bakoitzak bere ikuspuntua dauka eta jakina bere interesak hau edo beste, hura kontatzeko. Nire ustez zentzuzkuena irizpide kritikua izatia da eta bai zure gustukoa dan egunkarixa eta gorroto dozuna irakurri eta ondorixuak etaratzia.



GUTUNAK

Eskerrik asko Plaentxia

Ez dago hitzik bizi dudan infernu hau deskribatzeko, ezta ere Plaentxiarrok une latz hauetan eman didazuen babes, laguntasun eta maitasuna eskertzeko ere. Mila esker denoi bihotz-bihotzez. Harro sentitzen naiz zuen artean bizi izanaz, benetan maitatua sentitzen naiz. Esker mila bereziki Pablori, Iñakiren azkenengo orduetan berakin egotearren, Urko eta Mertxeri burokraziarekin laguntzeagatik, Iñakiren ekitaldia antolatu zenuten lagun guztioi (benetan hunkigarria), bidixua egin

duzenoi, Pil-Pileanen azaldu ziren artikulu, argazki, olerki... prestatu zenuten guztioi.... eta noski, nire eskerrik beroenak bihotzeko lagun diran Andoni eta Amaia, erortzen naizen bakoitzean hor zaudetelako ni jasotzeko. Mirari eta Romani, eskaintzen ari zaizkidan laguntza guztiagatik. Iñaki laztana, zuri ere eskerrik asko zure bizitza nirekin konpartitzearen eta elkarrekin ditugun bi seme alabak emateagatik. Maite zaitut.

Amaia

Zomorro mozorroak

Gaztetxia herritar danona dala eta guztiontzat atiak zabalik dittuala esan izan dogu sarri, baina, ikusittakuak ikusitta, garbi daukagu jarrera jakin batzuk ez daukela lekurik bertan. Inauterixen ospakizunetan, igande goizaldian, Gaztetxian gertatutako liskarran harira, asanbladako kidiok hauxe adierazi nahi dogu: Gaztetxia izaera askedun gunia dala eta, beraz, bertan ez dala jarrera sexista, homofobo, arrazista ezta bestelako jarrera zapaltzailerik onartzen.

Gaztetxeko atetik barrura nahi ez doguna kanporako be ez dogu nahi; hau esanda, azken aste eta hilabetietan herrixan gertatu diran kutsuko erasuak salatzen dittugu.

Errespetuan eta begirunian oinarritutako harreman askiak eraiki eta landu nahi dittugu. Borondate hori daukanak zabalik izango dittu beti gaztetxeko atiak, kolore, jatorri edo sexu aukera dana dalakua izanda be.

Soraluzeko gazteria

© Pil-Pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek
erakunde hauen
dirulaguntza
jasotzen du euskara
bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Etzoi Larrañaga

Arrazoi galantak M8a ospatzeko

Laz mende bat igaro zen martxoaren 8a, Emakumearen Eguna, ospatzen hasi zenetik. Sufragistak, feministak eta beste mugimendu askok gogor borrokatu izan dute historian zehar emakumeen eskubideen alde. Baina martxoaren 8a izendatzeak aurrerapauso bat ekarri zuen: gizartea zapalkuntza egoera aldatu beharra dagoela onartzen hasi zen.

Egun hau AEBko lantoki batean 146 emakume erail ondoren egindako mobilizazioengatik hasi zen ospatzen, eraildutako emakume hauen memoriagordetzeko. Baina ez dira gogoratu behar diren bakarrak. Mendeetan zehar milioika emakume dira gizarteak zapaldu dituenak. Zenbait lekuetan agerikoagoa den arren, hemen ere txikitatik burka soziala gainean jartzen digute, eta horren atzean ezkututzen da arazoa.

Sarri entzuten da: ez da zergatik egon behar bereziki Emakumeen Eguna, aldarrikatzea eguneroko lana da.

Baina ez da errealitatea. Gu txi dira egunero honen alde borrokan dihardutenak. Beraz, ez dago txarto borroka honen aldeko egun bat izatea, mundu osoan, egun batez bada ere, aldarrikapena lau haizetara zabaltzeko.

Arrazoi galantak ditugu martxoaren 8a ospatzeko. Beraz, irten kalera, entzun dadila gure ahotsa eta jarraitu borrokan!

Moises Altuna, Itxaropena Elkarteko lehendakari ohia

Moisesek eta bere lan-taldeak gidatu dute Itxaropena Jubilatuen Elkarteko junta azken bi urteotan. Ogibidez harakina izandakoa da eta 63 urterekin jubilatuz bazen ere, ez du erretirorik hartu; ez behintzat jubilatuen etxean. 670 bazkide dituen elkarte gidatzea abentura polita dela dio, nahiz eta sarri, egun zehar sortutako buruhausteek loaldia ere nahasi dioten.

Agurtu barri dozu lehendakari postua. Gogoz lekukua pasatzeko?

Gogoz egin dogu lan, gogoz hartu genduan juntako arduria baina gogoz pasatuko dogu lekukua. Intentsua da juntiak egitten daben lana eta ardura haundixa izan da guretzat diru-kontuak ondo baino hobeto zaintzia.

Lan-karga haundixa izan dozu?

Danetik izan da! Elkartiak bazkide asko ditte eta sarritan sortzen diran arazueri aurre egittia ez da lan erraza izaten. Arazo horrek borondate ona ipinita eta enpeño askokin aurrera etara dittugu! Horrekin bakarrik pozik egoteko moduan gare!

Zer izan da polittena? Eta zailena?

Egin dittugun irteerak, sortutako giruagaittik, txalotzeko modukuak izan dira! Aurten Burgos, Nafarrua eta Logroño bisitatu dittugu eta Bizkaitik bueltia be egin genduan. Sagar-dotegira urteerik be arrakasta

((ENTZUTEKUAK))



Moises bi urtean izan da Itxaropenako lehendakaria.

itzela izan zeban eta bazkidiak poz-pezik itzuli ziran, pentsau! Zailena? Gabonen bueltan sortzen diran loterixa asuntuak kontrol-pian izatia, duda bare. Bazkiden kuotak kobratziak be ematen ditte buruhauste galantak!

Elkartiak badauka hobetzeko zeoze?

Herriko jubilatuek kezatzeko arrazoi gutxi daukela esango neuke! Udala eskatutako dana emoteko gertu egon da beti, alde horretatik ezin gehixago exigidu! Juntiak egin daben azken eskaria, herriko ezgaituak elkartera gerturatzeko autobusa izan da. Hau urria eskatzia moduan dala badakigu baina ahalegindu egin bihar! Eguneko Zentrua zabaltzia be ondo legoke.

Hurrengo junta berriko kideentzat, gomendxorik?

Beren artian konpondu biharko dira! Lan-talde majua osatu ezker, oso lan polita eta aberasgarria da. Junta ohiko kidiak bihar dabenian laguntzeko prest izango gara!

Eguneko Zentrua zabaltzia ondo legoke!

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

H.NOS. BENITO ANAIK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Harreman eredu berriak landu nahi dituzte martxoaren 8an

Eguaztenean hasi ziren emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ezberdintasun egoerak bistaratzeko ekimenarekin Emakume langileen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko Udaleko Parekidetasun Batzordeak, Emakumeen Topaguneak eta Pil-pilean Euskara Elkarateak antolatutako ekimenak. Atzo elkarretaratzte herrikoiak eta pintxo-pote feministak kolore moreaz jantzi zituzten herriko kale eta bazterrak eta gaur, Ixabel Millet ipuin kontalaria giza-emo-

zioak lantzeko helburuarekin dator gurera. Samurtasun eta irrifarren artean emozioen gainean surfeatzeko aukera izango dela aipatu du Milletek eta Zinera gerturatzaren direnek arimari zuzenean hitz egiteko gaitasuna egiaztagarria dela ikusteko aukera izango dutela aurreratu du.

Zinea, antzerkia eta bideo-foruma dotozen egunetan

Antolatzaileek, ekintzok, generoen arteko harreman eredu berriak landu eta garatu nahi dituzte. Horretarako ezinbestekoa ikusi zuten adin tarte ezberdinei zuzendutako egitaraua ekoiztea. Domeka honetan herriko txikiengana jo nahi dute "Hirukiak: Pirata Andreak, Troiako Elena eta Oliver Twist" filmarekin eta martxoaren 16an 22:15ean, "Como como coco me descoco poco" antzezlan taularatuko du Quemadura Teatro antzerki taldeak. "Las chicas del calendario" helduei zuzendutako bideoforumak itxiko du aurtengo egitaraua. Ekintza guztiak doakoak izango dira.



Itxaropenak junta berria du

Aurreko martitzenean egin zuten datozen bi urteetan Itxaropenako administrazio zerbitzua kudeatuko duen lan-talde berriaren osaketa. Juana Soralezek, Enkarna Arrizabalagak, Araceli Maiztegik, Natalia San Josek, Pedro Mari Aldazabalek, Pedro Jorgek eta Mari Fran Aizpuruk osatzen dute junta berria eta Jose Antonio Callesek beteko du lehendakari postua.



Euskaraz bizi egunera joateko autobusa

Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatuta Euskaraz bizi Eguna ospatuko da martxoaren 17an Donostian eta Pil-pilean Euskara Elkarateak bertara joateko autobusa antolatu du. Irteera goizeko 10:00etan izango da Errabal kaletik eta bueltako autobusa goizaldeko 02:00etarako zehaztu dute. Arduradunek hiru aukera eskaini dituzte bertaratu nahi dutenentzat: joateko autobusa, bueltatzeko autobusa edo joan-etorria egitekoa. Izen ematea 943 75 1304 edo euskara@pilpilean.com helbidean egin daiteke, baita Arrano edo Iratxo goxodendan ere. Egitaraua: www.euskalherrianeuskaraz.org.

Odola emateko aukera Itxaropenan

Urteko bigarren odol ateratzte saioa egingo da martxoaren 23an arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara Itxaropena Elkartean. Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteko eta herriko ordezkari zatik dei egin diete herritarrei odola ematera joateko, gazteei bereziki. Baldintzak osasun arazorik ez izatea eta 18 urte beteta izatea dira.

1928an jaiotakoek bazkaria

Emakume talde honek aurtun, 84 udaberri beteko dituztela ospatzeko urteroko bazkaria egin zuen Armendi jatetxean. Argazkian: M^a Irusta, Jesusa Maiztegui, Rosario Basagutxigeaskoa, Margarita Argarate, Pilar Belategui, M^a Asun Bandaormae-txea, Pakita Unanue, M^a Crux Etxaniz, Rosario Oñal eta Maritxu Larrañaga. Zorionak denei!



Iturria: Abel Olaizola

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Soraluzetarrak Mus Txapelketako finalean

Otsaileko azkeneko asteburuan Gipuzkoako Mus Txapelketa jokatu zen Seguran. Honetan Mikel Belokik eta Alberto Losadak hirugarren postua eskuratu eta martxoaren 17an Arbizun jokatu den Euskal Herriko finalerako sailkatu dira. 250 herritan baino gehiagotan jokatu da txapelketa eta sarietan 40.000 euro banatu dira. Zorionak eta zorte ona opa diegu Mikeli eta Albertori!



Iturria: www.euskalherrikomustxapelketa.org

Herri Bilgunea proposamen bila

Euskal Preso eta Iheslarien eskubideak babesteko herrian sortu den Soraluzeko Herri Bilgune Mugimendua aurtengo plangintza prestatzen dihardu. Gaur bilduko da berriz, arratsaldeko 18:30ean kiroldegiko erakusketa gelan. Bilerara gonbidatu nahi dituzte herriko norbanako, eragile eta elkarte denak eta aurreratu dute nahi dutenek proposamenari ekarpenak egiteko aukera izango dutela.

KZgunea arratsaldez zabalduko da

Martxoan ere ikastaroz beteko da herriko internet gunea. Arratsaldez zabalduko ditu atea, 16:00etatik 20:00ora eta besteak beste, Antivirus programak, Twitter, QR Kodeak, Skype edota Metaposta zerbitzuak erabiltzen irakatsiko dute. Informazio gehiago 943 75 30 45 telefonoan. Ikastaro denak eta ordutegiak:



Udalbatzarrean Debegesari ordainketa atzeratzea onartu dute

Eguaztenean 2012ko aurrekontuak onartu zituzten, Gobernu Taldearen aldeko bost bozka, EAJren abstentzioa eta sozialisten aurkako bozkekin. Guztira 3.699.567 euro izango ditu udalak.

Bestetik, Debegesaren 2012ko kuota 2014, 2015 eta 2016 urteetan ordaintzea adostu zuten, aldeko bost bozka eta oposizioaren sei abstentziorekin, egoera ekonomikoa hobetuko delakoan.

Sistema errotik aldatzeko beharra

Lorea de Castro Parekidetasun Batzorde buruak komunikatua irakurri zuen Martxoak 8 Emakume langileen Nazioarteko Egunaren harira. Emakumeek jasaten duten zapalkuntza egiturazkoa dela eta antolaketa ekonomikoa, politikoan eta ideologi-

koanuztartutadagoela esanzuen: "Egiturazkoa da, patriarkatua gure jendartean erabat errotuta dagoelako eta antolaketa eredu hori sistema kapitalistaren ezinbesteko zutabea delako".

Bukatzeko, Soraluzeko Udalak mugimendu feministak antolatuko dituen ekimen guztietara joateko deia luzatu zien herriar guztiei.



Bukatzeaz daude ur-hoditegia aldatzeko lanak

Gipuzkoako Urak jakinarazi du, kontraktorik ezean, Zeleta auzotik behera datozen ur-hodiak zaharberitzeko lanak gaur bukatuko dituztela. Orain aste batzuk hasi ziren ur-hodi zaharrak berriengatik aldatzen, herriko ur-hoditegi garrantzitsuenetarikoa eraberritzen. Arduradunek jakinarazi dute azken asteetan izan diren ur-mozketak lanen ondorio izan direla, aldatutako hodiekin herri osorako emaria dute eta.



MAPFRE

SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Tel: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikarra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infosegocio.com

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

2012rako %8 txikiagoa den udal aurrekontuak onartu dute

Egoera ekonomikoa kaxkarra izan arren, herritarrengan ahalik eta gutxien eragiten saiatu dela esan du Udal Gobernu Taldeak. Kiroldagian edota zinegotzien ordainsarrietan egin dituzte murrizketak.

2012rako aurrekontuak onartu egin zituzten eguazteneko udalbatzar saioan, Gobernu Taldearen aldeko bost botu, EAJren lau abstentzio eta PSE-EEren kontrako bi bozkek.

Horrela, iazkoaren aldean, %8ko jaitsiera duen udal aurrekontua onartuta geratu da eta 3.699.567 euroekin moldatu beharko du udalak.

Arloetako partida ia denak bere horretan mantendu dira

Krisiak gogor jotzen dihardu Soraluzeko Udala ere, 2010etik beheranzko joera nabarmena jasan du, bi urtean %16 txikitu da udal aurrekontua. Zorpetze maila 2.380.137 eurokoa da; udalaren baliabide ekonomikoak ikusita zorpetze maila "altua" dela esan zuen alkateak, aurrekontu guztiaren %35 inguru.

Aurrekontu proposamenean aurreratu moduan, Arluziagak azaldu zuen arloetako partidak gehiago ez jaitea eta udaleko langileen soldatetan murrizketa gehiago ez ezartzea izan dutela helburu. Hori horrela, lehenago ikutu gabeko partidetan sartu dituzte guraizeak: kiroldegiaren defizita txikiagotuz 60.000 euro aurreztu ditu, udaleko zinegotzien asignazioetan %25eko jaitsiera ezarri 15.900 euro eta mankomunitatean 35.029 euro.

Aurrekontuen bilakaera

2007	4.229.351 €	+%10,68
2008	Ez ziren onartu	
2009	Ez ziren onartu	
2010	4.400.000 €	
2011	4.021.708 €	-%8,6
2012	3.699.567 €	-%8

Gastu arruntak: 430.434 €

Amortizazio gastuak (2009ko Foru Funtzari itzulketa): 516.735€

Udal langilegoaren gastuak: 1.280.392 €

Arloz-arloko diru partidak

- Kultura:	125.913 €	- Hirigintza:	163.318 €
- Parekidetasuna:	4.560 €	- Ingurugiroa:	35.236 €
- Euskera:	39.833 €	- Hezkuntza:	144.246 €
- Ongizatea:	107.933 €	- Hiri hondakinak eta	
- Kirola:	278.100 €	kale garbiketa:	567.467 €
- Gazteria:	5.400 €		

12.000 euro uholdeek eragindako kalteak konpontzeko

Inbertsioetarako 71.562 euro bideratuko dira, horietatik 12.000 euro, joan den azaroan uholdeek eragindako kalteak konpontzeko erabiliko dira. Aldundiak foru dekretu bat onartu du Gipuzkoako udal kaltetuei laguntzeko eta horien eskaera bideratzen dihardu udalak. Jaurlaritzari eta Estatuari erantzukizunez jokatzeke eskatuko die halaber.



ALDERDIEN IRITZIAK

“Zergak bildu eta zerbitzuak murriztu dituzue”

EAJ

Aldazabalek abstenitzeko erabakia “ez dela erreza” izan, baina “aurreko bi urteetan bezala koherentziaz eta erantzukizunez” jokatu dutela azaldu zuen.

Ezker abertzaleak eta EAK egindako udal kudeaketak “kiebra teknikoan” laga duela udala eta Gobernu Taldeari ea ez al duen auditoriarik egin behar galdetu zion.

Udalak zerga bitartez dirua bildu eta bestetik udal zerbitzuak murriztu dituela salatu zuen, baita inbertsio nabariarik ez duela aurreikusi. Zinegotzien ordainsariez ere mintzatu zen: “Nahikoa da ordainsariak eztabaida politikoan erabiltzea. Utzi alde batera titular populistak eta zuzendu udal kudeaketara zuen lana”. Bukatzeko EAJ taldea egotzari buelta emateko prest dagoela esan zuen, “Soraluzeren eta soraluzetarren ongizatearen alde”.

EAJ:

PSE-EE:

Alderdi sozialistak argi laga nahi izan zuen aurkako bozka ez zuela aurka egite soilagatik eman. Borinagak esan zuen, Gobernu Taldeak aurrekontuen doiketak egikaritzekoan soilik izaten dituztela kontuan. Kritiko azaldu zen aldizkari honi emandako laguntza: “Euskera hutsean dagoen herri aldizkariari, herritarren zati haundi batek uler-tzen ez duelako irakurri ere egiten ez duena, ez genioke gazteria, emakume, kirol edota hezkuntza sailari baino diru gehiago esleituko”.

Gobernu Taldeari, hauteskunde programan azaldutako hirigintza plana, aparkalekuak edota Mendiolako biribilguneagatik galdegin zion. Amaitzeko “udalaren funtzionamendu egoki baten alde eta herritarren ongizateari begira” lan egiteko prest azaldu zen.

“Euskara hutsezko herri aldizkariari ez genioke horrenbeste diru esleituko”

PSE-EE

Hiart Arluziaga



Alkatea

Ze irizpidekin egin dittuzue diru-doiketak?

Herritarrei zuzendutako zerbitzuak ahalik eta gitxien kaltetzen ahalegindu gara eta neurri haundi baten pentsatzen dogu onartutako aurrekontuak hori betetzen dabela. Egoeria ez da bape samurra baina uste dogu lan ona egin dogula.

Aurrekontua aurreko urtietan baino bajuagua da. Ze joera aurreikusi leike datozen urtietara begira?

Oso zaila da jakittia datozen urtietan zer gertatu leiken. Beraz tokatzen jakuna da dittugun baliabidiak ahalik eta egokixen erabiltzia eta aurreikuspen errealean gainian lan egittia. Hori da gure esku daguana eta hori betetzen ahaleginduko gara.

Zein dira udalaren erronka nagusixak?

Momentu honetan kudeaketa ekonomikua da erronka nagusixa. Horretaz gain asmo dexente dittugu eskuartian eta juango gara horren barri emoten eta berauetan parte hartzeko aukerak herritarrei eskaintzen.

Oposizinuak ze jarrera erakutsi dau aurrekontu proposamenaren gainian?

Bost hilabetetako prozesua izan da. Gu ahalegindu gara etenbarik oposizinuari informazino xehea helarazten eta zintzoki, pentsatzen dogu lan txukuna egin dogula zentzu horretan. Egixa esan, prozesu luze honetan ez dogu oposizinuaren partetik laguntza haundixegirik jaso, baina aurrekontuak onartu dira eta hori da garrantzitsuena.

“Momentu honetan kudeaketa ekonomikua da erronka nagusixa”



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Gipuzkoan zaborren kudeaketaren gainean eztabaida handia sortu da. Errauskailua, atez-atekoa, 5. edukiontzia...

Zure ustetan zein da birziklatzeko modurik eraginkorrena?

FRANCISCO LOPEZ



Ez dakit zein dan modu onena. Nik erreziklatzen dot eta kontzientziatuta nago kontu honekin, asko zaintzen dot etxian birziklapena. Hamendik kanpora ez dare horren kontzientziatuta.

ALICIA RODELLAR



Nik uste onena dan-danok kontzientziatzia litzakela eta hiritar danak erreziklatzia. Nik eskura daukadaz edukiontzixak eta ez jata kostatzen. Neretako erosuena bosgarren edukiontzixa ipintzia da.

IÑAKI IÑARRA



Ahoz danok gara ekologistak baina gero %90 ak ez dau erreziklatzen, kontzientzia maila oso baxua da ondio. Aldaketiari bildurra dotsagu beti eta politikueri kasu haundirik ezin geinkixo egin. Neri atez-atekua inposaketa bat irizten jata.

LOLI FRAILE



Ez dakit ba. Nik uste eztabaida honek batan edo bestian interesak dirala. Egixa da, hainbat hondakin berehala erretiratzia komeni dala. Baina danan gainetik ohitturak aldatzia da eta asko ez dare horretarako prest.

Eman zure iritzia sarean



KM Desing
Diseinua eta Formena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

**Kontulan
Aholkularitza S.L.**
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 SORALUZE
GIPUZKOA

Kontrargikoek erakusketa zabalduko dute

2011. urtean jasotako hogeita hamabost argazkik apainduko dituzte kiroldegiko erakusketa aretoko hormak martxoaren 13tik 31ra bitartean. Kontrargi Argazki Kolektiboa osatzen duten zazpi bazkideek jasotako momentuak izango dira erakusketan ikusi ahal izango diren irudiak.

Erakusketako ordutegia:

Astegunetan: 19:00etatik 20:30era
Asteburuetan: 12:00etatik 13:30era

**Kultur ekitaldien agenda****Gaur, martxoak 9****"EMOZIOTEGIA"**

Helduentzako ipuin kontaketa
Ixabel Millet-en eskutik.
22:30ean, Zinean.

Ant: Pil-pilean Euskara Elkarte

Martxoak 10, zapatua**ERREALZALEEN IX. URTEURRENA**

11etan salda eta txorizoa.
12-14ean eta 16-19ean, hurrentzako puzgarriak eta Gorroti eta bere abereak.
12:30ean buruhandiak herrigunean.
13:15ean txaranga
14:30ean bazkaria.

Ant: Txuri-urdin Elkarte

Martxoak 11, domeka**HAURRENTZAKO ZINEA**

"Hirukiak: Pirata Andreak, Troiako Elena eta Oliver Twist".
17:00etan, Zinean.

Ant: Soraluzeko Emakumeen Topagunea

Martxoak 16, barixakua**ANTZERKIA**

"Como como poco me descoco poco",
Quemadura Antzerki Taldearen eskutik.
22:15ean, Zinean.

Ant: Udaleko Parekidetasun Zerbitzua

8 film labor ekarriko ditu Laburbirak zinera

Laburbiraren IX. edizioa aurkeztu zuen aurreko astean Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak, "herrietako euskara elkarteekin lankidetzan euskarazko ikus-entzunezko urteko produktzioa ezagutarazi eta herrietako kultur eskaintza aberasteko". Aurtengo edizioak zortzi ikus-entzunezko biltzen ditu eta 30 emanaldi egingo dira. Saio bakoitzak 85 minutuko iraupena izango du. Betiko moduan, proiektioaren amaieran ikusleek, egileekin laburren gainean solasteko aukera izango dute. Hauek dira zehazki, martxoaren 23an gabeko 22:15ean Zinean eskainiko diren ikus-entzunezkoak:

ABERRIA: 1961, Gotzon Garate, dokumentala.

IZENA DUENA: Joseba Uberuaga (Benito Ansola beka).

INSTALACIÓN: Xoxe Diaz (galegoz euskarazko azpitoluekin).

OHE AZPIKO ZERA: Paul Urkijo eta David Zabala (Benito Ansola beka).

HEMEN NAGO: Maialen Sarasua.

URREZKO ERAZTUNA: Jon Garaño.

ZEINEK GEHIAGO IRAUN: Gregorio Muro.

KANTUKA: Revolta Permanent taldearen bideo klipa.



Jokin Oregiren "Alabatxo" antzezlanaren saritu dute

Gijonen egiten den Haurrentzako Arte Eszenikoen Europar Ferian (FETEN), Jokin Oregik zuzendutako lan bat saritzen duten hirugarren aldia da hau. 2008an "Zer duzu negarrez Marie?" antzezlanak Ikuskizun Onenari saria jaso zuen; 2010ean "Robot Maittea"-k interpretazio onenari saria eta aurtengo edizioan, "Alabatxo" saritu dute, epaimahaiak antzezlanari Ikuskizun Onenaren lehen sari esleitu dio. Zorionak!



Iturria: Jokin Oregi



"Alabatxo"-n Javier Renobalesek, Ana Meabek eta J. Ramon Sorozek egiten dute lan.

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11



Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soroluze
GIPUZKOA

XV. Soraluze Saria Caja Ruraleko Alberto Grijalbarentzat

Otsailaren 26an Soraluze Saria-riaren XV. edizioa jokatu zen. *Lehendakari Txapelketako* lehen proba honetan, 23 urtetik beherako 140 txirrindulari inguruk hartu zuten parte. Ibilbidean

118 kilometro egin zituzten. Helmugaratzen lehena Caja Ruraleko Fernando Grijalba izan zen 2:39:54 denbora eginda. Bost segundu atzetik iritsi ziren Ruben Fernandez taldekidea eta Debarrena taldeko Aitor Gonzalez, podiumean hirugarren.

Gainontzeko sariak:

Mendiko saria: Fernando Grijalba

Lehendakari saria: F. Grijalba

Taldekako saria: Caja Rural

Hasiberri saria:

Mikel Aristi (Debarrena)

Herritarrendako sariak:

Alberto Ginea (Dip. de León)

Mikel Aristi (Debarrena)



Alberto Grijalba frogako irabazlea, helmugaratzen.

Bi herritar Errioxako "Media maraton del camino" lasterketan

David Rascon eta Gonzalo Ariznabarretak Najeran hasi eta Santo Domingo de la Calzadan amaitzen den maratoni erdian hartu dute parte. David Rasconek

1:33:06-ko denbora egin eta 88. postuan helmugaratu zen. Gonzalo Ariznabarreta 1:38:35-eko denbora eginda, 185. postuan helmugaratu zen. David Rasconek Iñaki Ruizen dortsalarekin egin zuen antxintxiketan: "Oso lagun onak ginen. Biok eman genuen izena lasterketa hau korritzeko eta bere omenez, nere dortsalaz gain berea ere eraman nuen, 455 dortsala. Oso emotiboa izan da lasterketa hau niretzat". Honez gain, azaldu du lasterketa hasi aurretik minutuko isilunea gorde zutela Iñakiren omenez. Lasterketako bideoak:



Rascón Iñaki Ruizen dortsalarekin antxintxiketan.



Inere Alvarez Euskal Herriko Boulder Ligako azken txanpan

Zapatu honetan izango du azken froga eskalatzaila gazteak

Gasteizko Hegoalde kirolodegian. Goizez Zuriñe Arrue eta Goizane Saez de Olasagoitia lehiakideekin azkenigoerakegin eta arratsaldean finalak jokatuko dituzte. Bere burua iaz baino indartsuago ikusten duen arren, Boulder Liga bigarren postuan bukatuko duela uste du Irenek, Arrueren atzetik. Euskal Herriko txapelketa izango da bere hurrengo erronka nagusia.



Iturria: Irene Alvarez

EMAITZAK

PELOTA

Xala – Laskurain	22
Arretxe II – Begino	15
Xala – Laskurain	12
Berasaluz VIII – Albisu	22

FUTBOLA

Orioko F.T. – Sora (Erreg. Pref.)	3-1
Ontzerri F.T. – Sora (Erreg.)	6-0
Idiazabal K.E. – Sora (Jub.)	1-2
Aretxabaleta K.E. – Sora (Kad.)	4-0
Sora (BHI mutilak) – Zestoa K.B.	5-8
Sora (BHI neskak) – Urki C.D.	0-11
Sora (Erreg. Pref.) – Amaika Bat	2-2
Sora (Erreg.) – Beti Ona "B"	4-2
Sora (Jub.) – Urola	0-5
Sora (Kad.) – Bergara "B"	2-2
Orioko F.T. – Sora (BHI mutilak)	5-2
Bergara – Sora (BHI neskak)	1-3

AGENDA

PELOTA

Gaur, 20:00etan Angelun (etb1)

Xala – Laskurain
Titin III – Merino II

FUTBOLA

Zapatua 10, 16:00etan San Migelen

Mutriku F.T. – Sora (Erreg. Pref.)

Zapatua 10, 18:00etan Ezozin

Sora (Erreg.) – Asoleus C.F

Zapatua 10, 15:30ean Ezozin

Sora (Jub.) – Martutene K.E.

Zapatua 10, 11:30ean Ezozin

Sora (Kad.) – Antzuola K.E.

Domeka 11, 14:30ean Cesar Beniton

Juv. de America – Sora (BHI mutilak)

Domeka 11, 10:00etan Aita Marin

Zumaiako – Sora (BHI neskak)

MENDIA

Ibilaldi Neurtua,

Federazioak antolatuta.

Irteera: Debatik 9:00etan

Helmuga: Lastur

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.



ZORION AGURRAK



Josune Sabán
Otsailan 24an 13 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat, aman eta familixian partez!



Oihan Larrañaga
Martxuan 4an 6 urte!
Zorionak poxpolin!
Jarraitu irribarriakin bazterrak koloretzatzen!
Muxuak! Etxekuak!



Nayala Andrade
Martxuan 3an urtebete!
Zorionak eta muxu potolo bat gurasuen eta etxekuen partez!



Jon Urdangarin
Martxuan 9xan 11 urte!
Zorionak txapeldun!
Edarto ibili zure egunian eta muxu haundi bat etxeko danon partez!



Amaia, otsailan 24an 4 urte!
Ainhoa, martxuan 5ian 8 urte!
Zorionak eta muxu asko etxekuen partez!



Javier Plata
Martxuan 4an 5 urte!
Zorionak poxpolin eta txokolatezko muxu pilaaa etxekuen partetik!



Oihane Vila
Martxuan 9xan 22 urte!
Zorionak eta ondo pasatu zure eguna potxola! Muxu haundi bat familixian partez!



Markel Soraluze
Martxuan 14an 6 urte!
Zorionak mutil-haundi!!
Irribarre goxua eta muxu pila jaso, ikaragarri pila!



Zorionak Gloria!
Martxuan 2xan 86 urte!
Muxu ikaragarri pila, etxekuen partez!



Eiderrek martxuan 14an
Asierrek martxuan 24an
urtiak betetzen ditzuzelako, zorionak eta muxu pila-pila aitatxon partez!



Xabier Arribillaga
Martxuan 11n 28 urte!
Nerea Rodriguez
Martxuan 10ian 28 urte!
Beti bezain alai jarraitu eta muxu asko kuadrilakuen partez.



Zorionak Zunbeltz
Martxuan 1ian jaixua!
Txokolatezko muxutxuak Lurren eta danon partez



Ignacio Blanco Oregui
Martxuan 5ian 35urte!
Aurten bai, zorionaak!
Ondo pasatu eta muxu haundi-haundi bat, familixian partez!



Zorionak Osvaldo eta Inma,
martxuan 17xan ezkontzen zarie eta!
Egun zoragarria igaro deizuela eta bizitzako sasoi berrizaz gozatu!
Muxu pila kuadrilakuen partez!

jaiotakoak

ZUNBELTZ SALABERRIA SILBETI



hildakoak

NIKOLASA BERIZTAIN ALBISU
JULIA ARRESE ORBEGOZO
MARIA TERESA AREITOURTENA LASPITA



LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria: MP4 erreproduktore bat.**



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea: Maite Onaindia**

► **Brahim Ouargui,** Batzoki tabernako arduraduna da aurreko aleko argazkixa agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da. Ikusi pertsonaia guztiak Flickr-eko Pil argazkiak-en.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Maite Gorostidi

IRAKASLIEN ARTEKO FUTBOL PARTIDUA

Erretratu hau 70. hamarkada inguruan jasota dago, ondiok eraiki bare zeguan Mendiola poligonuan. Sasoi hartan asko ziran orubia garbi zeguala aprobetxatuta, umiekin pasiuari bertara juaten ziran gurasuak. Ikastolako irakasle talde honek be egun eder eguzkitxua aukeratu zeban futbol partidua bertan jokatzeko. Maisuak eta andereñuak elkarrekin nahastu eta harremanak sendotze aldera jokatu zeben futbolian.

Argazkixan:

Goian, ezkerretik eskumara: Oskar Lizarralde, Ana Oregi, Iñaki Iñurrieta, Amaia Laskurain, Ramon Leturiondo eta Maite Gorostidi.

Behian: Miren Elduaen, Koldo Ugarte, Begoña Valiente eta Marisa Ezenarro.



PETRA URANGA ORMAETXEA

2011KO MARTXOAREN 11N ZENDU ZEN
83 URTE ZITUELA

“Bizi osoko lagun zenezkan
bizi poza ta indarra
Bihotzean daroagu zure
hortz betezko irriparra
Atzo gabetik keinuka dabil
piztua duzun izarra”

Urtebete pasatu arren,
egunero akordatzen gara zutaz.

Etxekoak

euskarazbizi!

Martxoak 17
DONOSTIA

eguna
2012



Goizean: (Trinitate plazan)

- Txupinazoa, kalejira eta bihurrikeriak
- BONBERENEA Txarangarekin eta PORROTX pailazoarekin (11:00)
- PUZGARRIAK eta haurrentzako TAILERRAK
- AZOKA, MUSIKA, KALE-ANIMAZIOA, KANTU JIRA (alde zaharretik)
- Hizkuntza Jokabideen TAILERRA, BAKARRIZKETAK (10:30 eta 12,00ak)
San Telmo Aretoa

Eguerdian: (Konstituzio plazan)

- EHI INKA laguntzako HERRI BAZKARIA eta KANTU JIRA

Saldean: (18:30ean, Bulebarretik hasita)

azio MANIFESTAZIO alai eta koloretsua,
ondoren EKITALDIA,
PATXARANGA alde
zaharretik,
HERRI DANTZAK

(Konstituzio
plazan)

Iluntzean:
(Trinitate plazan)

3gabe2

AUTOBUSA SORALUZETIK

Izena emateko: Pil-pilean Euskara Elkartea
(943 75 13 04 / euskara@pilpilean.com),

Arrano taberna edo Iratxo gozodenda
Autobusean tokia hartzearekin batera
bazkaritarako erreserba ere egin daiteke.



BETAGARRI

EUSKALDUNA NAIZ eta

**NAZIO
MANIFESTAZIOA**

**HARRO
NAGO!**



euskal herrian euskaraz



Soraluzen
Kale-Dantza Eguna
2012



Martxoaren 24an

Txistularien kalejira, herrian zehar, 10etan

Buruhandiak, herrigunean, 11:30ean

Salda eta txorizoa, Plaza Barrixan, 12:00etan

Kaledantza, dantzari eta txistulariekin, herrigunean, 12:00etan

Bazkaria, Allegron, 15:00etan

Dantza Poteoa, herrigunean, 18:30ean

Antolatzailea



Soraluzeko Txisturariak

Laguntzaileak



Soraluzeko Udala



PIL-PILEAN